



Xuxen-Mac OSX

Eskuliburua

Euskararako zuzentzaile ortografikoa

Egileak :



IXA Taldea

Informatika Fakultatea (EHU)
649 Posta-kutxa
20080 Donostia



INGENIARITZA
ELEKA
LINGUISTIKOA

Eleka

Ingeniaritza

Linguistikoa

Zelai Haundi Kalea 3
Osinalde industrialdea
20170 Usurbil



Hizkia

Atrium
le Forum
64100 Baiona

Egileak

Eleka Ingeniaritza Linguistikoa

Hizkia

IXA Taldea (Informatika Fakultatea - EHU)

Babesleak

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

1. Atarikoak

Eskuliburu honetan euskararako zuzentzaile ortografikoa den **Xuxen** izeneko programa azaltzen da. Bertsio hau *OfficeX* paketetan integratzen da eta, horrela, *Word*, *PowerPoint* eta *Excel* programetan ibiliko da batere eragozpenik gabe. Funtzionamenduaren aldetik beste hizkuntzetako testuen zuzenketa ortografikoa bezala erabiltzen da.

Xuxenen helburua euskaraz idatzitako testuen akats ortografikoak detektatu eta zuzentzea da, ahalik eta modu eroso zein eraginkorrean. Hasieratik argi utzi behar da programak ez duela errore sintaktiko edo semantikorik detektatzen eta, euskara batuaren erabilpena bultzatzen duenez (Euskaltzaindiaren azken erabakiak barne), ez dituela ontzat ematen forma dialektalak, nahiz eta batzuk ezagutu eta beren ordezkoko estandarra proposatu.

Xuxen erabiltzeko, sistema instalatu ondoren (ikus 2. Atala) euskara aukeratu behar da dokumentuaren hizkuntza gisa, eta *Officeren* mekanismoek burutzen dituzte gainontzeko funtzio gehienak. Beraz, zuzentzaile honekin *Word*, *PowerPoint*, *FrontPage*, *Outlook* eta *Excel*-eko testuak zuzen daitezke.

Xuxen Eleka Ingeniaritza Linguistikoa enpresak garatu du, Hizkia enpresarekin lankidetzan eta UPV/EHUko IxA taldearen laguntzaz. Garapen honek Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza jaso du. Arazorik edo zalantzarik edukiz gero xuxen@eleka.net e-posta helbidera bidali zure mezua.

OHARRA- Eskuliburuan agertzen diren irudiak gaztelaniaz daude erabiltzaile gehienek, orain arte behintzat, Office hizkuntza horretan dutela suposatu dugulako.

2. Instalazioa


Instalazioari ekin aurretik www.euskadi.net helbidetik kargatu behar duzu paketea, lizentziaren baldintzak onartu ondoren. Kargatu duzuna horrela ikusiko duzu kokatu duzun karpeta irekitzen duzunean:




Instalatzeko prozesua ia automatikoa eta oso erraza da. Aurreko irudian bi aldiz klik egin da instalazio-programa martxan jarriko da. Instalatzeko aurkituko dugun lehen mezua hau izango da:



Eta jarraian hau:



Pantaila honetan instalazioari buruzko zenbait argibide ematen dira. Argibide hauek lagungarriak izango zaizkigu hurrengo irudian agertzen den pantailan. Goiko pantaila eta hurrengoaren artean lizentzia onartzeko eskatzen digun pantailan aurrera sakatu beharko dugu.



Kontuan izan aurreko pantailako argibideak instalazio karpeta aukeratzeko orduan. Hego Euskal Herriko Mac gehienetan "Aplicaciones:

Microsoft Office X:Aplicaciones Compartidas:Correctores Ortográficos” izango da karpeta egokia. Ondoren Instalatzeko botoian klik egin eta instalazioaren atal nagusia burutuko da.

Instalazioa amaitutakoan ondoko mezua agertuko da:




Irteteko aukeran klik eginez bukatzen da prozesua eta Xuxen erabiltzeko prest dago konputagailua.

3. Erabilera¹

3.1. Hasiera

Instalazioa eginda dagoenean *Office*ko edozein programa erabiltzen ari garela zuzentzaile ortografikoa prest daukagu erabiltzeko.

Lehenengo urratsa dokumentuaren hizkuntza hautatzea da; horretarako *Tresnak* (*Tools, Herramientas*) menuko *Hizkuntza*→*Ezarri Hizkuntza*(*Language*→*Set Language, Idioma*→*Elegir Idioma*) aukeran *Euskara*(*Basque, Vasco*) selekzionatuko delarik.



Lehenetsi (*Default...*, *Predeterminar...*) aukeratuz gero euskara izango da, besterik esaten ez den bitartean, lan-hizkuntza.

Hau ez da horrela *Office*-ko beste programa batzuetan:

- *PowerPoint*-en eta *Outlook*-en *Word*-en bezala egiten da
- *Excel*-en *Tresnak* (*Tools, Herramientas*) menuko *Ortografia* hautatuz hiztegiaren hizkuntza hautatuko da
- *FrontPage*-n *Fitxategia* (*File, Archivo*) menuko *Ezaugarriak* (*Propieties, Propiedades*) hautatu eta hizkuntzan sakatuz egingo dugu aukera

¹ Argibideak eta irudiak Officen Windows bertsioakoak dira.


Honek balio du dokumentu berri bat idatzi nahi dugunean. Aurretik idatzitako dokumentuetan eragina izan dezan, dokumentu osoa (edo euskaraz dagoen zatia testu osoa euskaraz ez badago) selekzionatu eta goian bezalaxe egin behar da euskaraz dagoela adierazteko.

3.2. Egiaztapena eta zuzenketa

Behin hizkuntza aukeratuta, euskarazko testuen egiaztapena burutuko da beste hizkuntzetan egiten den bezala.


Hitz ezezagunak azpimarratuko ditu *Ortografia idatzi ahala egiaztatu* (*Check spelling as you type, Revisar ortografía mientras escribe*) aukera aktibaturik baldin badago *Aukerak...* (*Options..., Opciones...*) barruan *Ortografia eta gramatika* (*Spelling and Grammar, Ortografía y gramática*) erlaitzeko txartelean.

Zenbaki eta daten flexioa egiazta dadin desaktibatu behar da *Zenbakidun hitzak ez kontuan hartu* (*Omitir palabras con números*) aukera



txartel horretan.

Zuzenketa egiteko proposamenak lortzeko saguaren eskuineko botoia (edo Ctrl tekla eta botoi bakarra batera) sakatu beharko da azpimarratutako hitzaren gainean. Erabiltzailearen hiztegian gehitzeko aukera ere izango dugu *Gehitu* (*Add, Agregar*) aukera selekzionatuz (ikus




3.3 atala).

Bestela, idatzi ahala egiaztatu nahi ez denean alegia, *Tresnak* (*Tools, Herramientas*) menuko *Ortografia eta gramatika* (*Spelling and Grammar, Ortografía y gramática*) aukeraz baliatuko gara ortografia egiaztatzeko.

Ezagutzen ez diren hitzetarako zenbait aukera eskaintzen du:

- *Ezikusi* (*Ignore, Omitir*): ontzat ematea bertan
- *Ezikusi denak* (*Ignore All, Omitir todos*): hitz hori ontzat ematea dokumentu osoan
- *Gehitu* (*Add, Agregar*): erabiltzailearen hiztegiara eramaten du (ikus 3.3 atala)
- *Aldatu* (*Change, Cambiar*): testuko hitzaren ordeztu aukeratuta dagoen proposamena jarri oraingo honetan
- *Aldatu denak* (*Change All, Cambiar todas*) Aldatu bezala baina oraingo honetan eta fitxategiko gainontzeko agerpenetan



3.3. Erabiltzailearen hiztegia

Beste hizkuntzetan bezala lexikoa zabal daiteke erabiltzailearen hiztegi pertsonalean hitz berriak sartuz, baina formak hiztegian sartzen diren bezala ezagutuko dira, **eta ez flexio osoa** (hau egiten da XuxenII programan baina Pcrako bakarrik dago). Horrela, Mac bertsio honetan "*esnatzailea*" gehitzen baldin badugu, hortik aurrera *esnatzailea* ontzat hartuko du programak baina *esnatzaileari*, *esnatzailearen*, *esnatzaileak* ... ez ditu ezagutuko.

4. Ezaugarriak

4.1. Zer da Xuxen?

Helburua euskarazko testuen zuzentasun ortografikoa bermatzea da, hau da, errore tipografikoak zein ortografikoak detektatu eta zuzentzea. Helburu honi begira euskara batua da onartzen dena. Euskara batuan zuzena ez den hitz bat aurkitzen duenean **Xuxenek** abisua ematen du. Abisuari kasu egitea edo ez egitea erabiltzailearen esku dago.

4.1.1. Zer egiten du?

Dokumentuak hitzez hitz tratatzen dira, hitz bakoitza zuzena denentz erabakiz. Hitzak ezagutzen dituen bitartean lanean jarraitzen du etengabe, baina hitzen bat ezagutzen ez duenean abisua ematen du. Abisu baten aurrean erabiltzaileak honako aukera hauek ditu:

- Hitz onartu agerpen konkretu horretan.
- Hitz onartu eta gogoratu aurrerantzean; horrela, dokumentuan berriro azaltzen bada, onartu egingo da abisurik eman gabe.
- Hitz onartzeaz gain hitzaren erroa hiztegi pertsonalean sartu; horrela hitz hori ezezik, bere errotik sortutako forma guztiak (flexioak) ere onartuko dira dokumentu horretan eta etorkizunekoetan.
- Hitz zuzendu teklatutik, erabiltzaileak hitz-forma egokia dakienean.
- Proposamenak eskatu, erabiltzaileak hitza nola idazten den ez dakienean edo zalantzan dagoenean.

Xuxenen prozesua konplexu samarra da, euskara eranskaria denez, ezin izan baita erabili inguruko erdaretan bezala hitz-forma guztiakin osatutako zerrenda. Euskarazko hitzek morfologikoki analizatzea eskatzen dute egiaztatuko badira.

4.1.2. Zer ez du egiten?

Xuxenek, beste zuzentzaile ortografiko guztiek bezala, ez du testuingurua kontuan hartzen; beraz, ondoko kasu hauetan ez du laguntzarik emango:

- Arazo sintaktikoetan: "Ni dut" edo "berari eman du" bezalakoak ontzat emango ditu, hitzez hitz hartuta horiek denak zuzenak baitira.
- Akats baten ondorioz sortutako hitz egokietan: "klaseak hazi dira" idatziz gero, "hazi" beharrean "hasi" jarri nahi bazen, hori ez litzateke harrapatuko.
- Hitz bat bi unitatetan zatitzen bada proposamenak ez dira egokiak izango.

Gerta daiteke, baita ere, abisua ematea ondo dauden hitzetan, hauen erroak **Xuxenen** hiztegian ez daudenean. Hiztegi handia duenez, arazo hau hitz teknikoekin, pertsona eta toki izenekin edo hitz arraroekin gertatuko da batik bat. Maiz erabiltzen diren hitzekin horrelakorik gerta ez dadin, komeni da hitz horiek erabiltzailearen hiztegian sartzea.

4.2. Ezaugarri orokorrak.

- a) Dokumentuaren barneko analisi-unitatea hitza da testuingurua kontuan hartu gabe; beraz **Xuxenek** detektatu eta zuzentzen dituen okerrak euskara batuan ez dauden hitz-formak dira, baina inola ere ez du detektatzen komunztadura falta, edota, sintaktikoki akastuna izan arren, euskaraz egoki osatutako hitza (*etxeen nago*, esate baterako ontzat emango du).
- b) Okertzat eman ditzake euskarazko hitz egokiak bere hiztegi nagusian ez daudelako. Hiztegia aberasten ari denez, etorkizuneko bertsioetan gutxiago gertatuko da. Dena den, hitz hauek erabiltzailearen hiztegian sar daitezke, handik aurrera okertzat jo ez ditzan.
- d) Euskalkiei dagokien lexikoa sarturik ez dagoenez forma dialektalak (eskeini, haundia, ...) okertzat jotzen ditu **Xuxenek**. Hau nahita egiten da eta honela mantenduko da, euskara batuaren arauak bultzatu nahi baititu **Xuxenek**. Halako hitzak erabiltzailearen hiztegian sar daitezke baina kontutan hartuz deklinabide batua dela onartzen den bakarra.
- e) Erabiltzaileak ezin du hiztegi orokorra aberastu, baina bere hiztegi pertsonalaren bidez (erabiltzailearen hiztegi) aberats dezake **Xuxenek** onartuko duen lexikoa.

Aurreko horren guztiaren arrazoia sinplea da, zenbat eta lexiko handiagoa izan aukera gehiago dago hitz oker batzuk ontzat hartzeko; beraz, hitz orokorrak ez badira, hobe da gai edo

erabiltzailearekin lotutako hiztegi berezituetan edukitzea, horrela hitz horiek behar diren testu edo erabiltzaileei lotuta baino ez baitira onartuko.

Erabiltzaileak hiztegi pertsonal bat baino gehiago eduki dezake, bakoitzari bere izena emanda, eta egiaztapen edo zuzenketa bakoitzean horietatik nahi adina erabili ahal izango ditu. Hala ere, ez da gomendatzen hiztegi asko erabiltzea batera.

5. Hizkuntz eredua

Xuxenen helburuetako bat euskara batua bultzatzea da, “xuxen” idazteko laguntza emanez. Horregatik, irizpideen iturri nagusia Euskaltzaindia izan da. Erakunde honek emanak ditu hainbat arau eta gomendio, argitaratuak ditu euskal gramatika eta hainbat zatikako hiztegi eta hiztegitxo.

Hala ere, Euskaltzaindiak erabakirik plazaratu ez duen kasuetan UZEIren irizpideak jarraitu dira gehienbat, eta tarteka Elhuyar bezalako beste erakundeetara ere jo dugu.

Xuxenen hizkuntz ereduak bi osagai nagusi ditu: gramatika eta lexikoa.

5.1. Gramatika

Euskararen flexioa kontuan hartuta, **deklinabide-sistema** ordenadorez erabilgarria eraiki behar izan da. Horretarako, Euskaltzaindiak proposatutako taulan oinarritu gara eta gure sistemara egokitu dugu; hau da, taula hori hartu eta lexiko-kategoria bakoitzari egokitzen zaizkion kasuak multzoka eratu ditugu. Horrela oinarri bakoitzari atzizki-multzo bakarra dagokio, har ditzakeen atzizkiez osatua.

Erororpenean aurrizki eta atzizki erabilienak (ez-, -te, -tze, -dura, -men, -mendu, -pen, -garri, -gile, -tsu, -dun, -ka, -ki, -tasun, -xe) landuta daude erroekin (izena, aditza edota adjektiboekin kasuaren arabera) lotzeko. Gainontzeko kasuetan forma eratorria ez da onartuko dagokion hiztegi-sarrera (eratorria) lexikoan ez baldin badago. Hala ere, erabiltzaileak bere hiztegian sar ditzake hitz eratorri berriak. Eratorpen atzizkiak onartzean programa malguagoa da lehen bertsioa baino, baina gainsortzailea ere gertatzen da (ogigile* onartuko da okinaz gain eta estalmen* estaltzez gain).

Hitz-elkarketan ere, ohizkoena eta sistematizagarriena landu da momentuz, Euskaltzaindiaren LEF Batzordeak markatutako irizpideen arabera. Aditz faktitiboa ere sistematikoki landuta dago.

Aditzari dagokionez, aditz laguntzailearen zein trinkoaren formak ezagutzen ditu **Xuxenek**, beti ere Euskaltzaindiak erabakiak. Forma neutroak, markatu gabeak nahiz **hitanozkoak** ezagutzen ditu **Xuxenek**.

5.2. Lexikoa

Gramatikaren atalean Euskaltzaindia izan bada arau-iturri bakarra, bestela gertatzen da lexikoa lantzen hasi orduko. Puntu batzuetan emanak ditu kasuan kasuko gomendio eta erabakiak: *H* letra, *-a* berezkoa, zenbakien osaera eta idazkera, etab. Horiek jarraitu ditugu lexikoa osatzean. Beste hainbeste gertatu da pertsona eta leku izenekin, bai eta maileguen idazkeran ere.

Oinarrizko hiztegia sortzeko, hau da, edozein lexikotan maizenik agertzen diren lehen zerrenda, gaurko beste iturrietara jo behar izan dugu: Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegia*, UZEIko Euskalterm datu-bankua eta EEBS datu-base lexikografikoa, Elhuyar hiztegia, Xabier Kintana eta besteren *Hiztegia 2000*, J. M. Etxebarriaren *Maiztasun- eta Prestasun-Hiztegia*, etab. Euskaltzaindiaren irizpideekin bat ez zetozenean, sarrerak "egokitu" egin dira; eta, Euskaltzaindiak erabaki ez dituenetan, Ibon Sarasolaren hiztegia izan da irizpide-iturri.

Oinarrizko hiztegia osatu nahirik, UZEIko EEBStik hainbat esapide, lokuzio eta forma konplexu hartu da. Siglak eta laburtzapenak ere UZEIko irizpideen arabera landu dira. Hiztegi arruntetik abiatuz, terminologiaraino iritsi behar izan da zenbaitetan. Ezinbestekoa izan da Euskalterm horrelakoetan.

Izen propioen zerrenda osatzeko (izen propioak hiztegi arruntetan ez badatoz ere), bi iturritara jo da: lehena Euskaltzaindiak proposatutako euskal pertsona- eta leku-izenen zerrenda izan da, baina munduko leku-izenen zerrendatua eskuratzeko Elhuyar-era jo da.

Iturri hauetatik guztietatik edanda tamaina handiko hiztegia osatu dugu, testu arruntetako lexikoa, gutxienez, baduena. Hala ere, gai berezitetako terminologia norberak sartzeko aukera izango du bere hiztegi pertsonalean.

5.3. Xuxenek onartzen ez dituen formak: irizpideak

Xuxen osatzeko erabilitako irizpideak aipatu dira orain arte, baina egiaztatzailea eta zuzentzailea den neurrian, baztertu beharreko formentzat ere erabili dira hainbat irizpide: adibidez, euskalki desberdinetako deklinabide-kasuak (*-ai -ei ordez (lagunai), -tikan -tik ordez (etxetikan), ...*), hiztegiek baztertzeko markatzen dituzten forma dialektalak (*haundi*) nahiz zaharkituak, etab. aparteko gramatika batean sartuta daude, zuzenketa adimentsua egin ahal izateko. Hauekin batera aldaera fonetikoak (*ifini, gultzurrun*), maileguen egokitzapen okerrak (*reglamentu*) eta ahoskerak eragindako desbideratzeak (*errita, gatx*), beti ere maizen aurkitzen direnak, izan dira kontuan. Badira, bestalde, Euskaltzaindiak onartzen dituen kasuak (*-rat, -ganat,...*), guk berariaz sistematik kanpo utzi ditugunak. Bertsio honetan forma okertzat emango ditugu.

Dena den, zuzenketa adimentsuaz gain, karaktere-konbinazioan eta hauen agerpenen maiztasunean oinarritutako zuzenketa ere egiten du, batez ere sistemaren azkartasunari begira.

Hemen ere, noski, erabiltzaileak sartu ahal izango ditu **Xuxenek** "baztertzen" dituen formak hiztegi pertsonalean hala irizten dionean.

5.4 Bertsio honen zehaztasunak

Xuxenen bertsio hau 2001eko irailean sortua da. Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko zerrenda guztiak egiaztatu dira. Elhuyarren hiztegi elebidun txikiko sarrerak (nagusienak: izenak, izenondoak, izenlagunak, aditzak eta interjekzioak) ere landuta daude.

Etorkizunean, etengabe eguneratuko denez, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko Batzordeak erabakiak hartu ahala, guk ere **Xuxenen** sartuko ditugu, lexiko baturanzko bidea baita.

Guztira 75.000 sarrera inguru daude, honela banatuta: izenak (arruntak, pertsona-izenak, leku-izenak), adjektiboak, aditzak, adberbioak, izenordainak, determinatzaileak, lotura-elementuak (juntagailuak eta lokailuak), interjekzioak, lokuzioak, laburtzapenak, siglak, etab. Deklinabide-atzizkiak, menderagailuak, eratorpen-elementuak, etab. gramatikaren sailean bilduta daude, beste multzo batean.